

## 10. KOSTUEN EGITURA:

Inuu Yimado enpresak hainbat kostu edukiko ditu. Alde batetik kostu finkoak egongo dira, eta horiek, aplikazioa hilabetero edukitzeak dituen kostuak dira (elektrizitatea, aplikazioa edukitzeagatik ordaindu beharreko dirua...). Gainera, guk lana egiteko, hau da hilabete egongo diren ekintzak prestatzeko toki bat beharko dugu, eta toki hori edukitzearen truke ordaindu beharko dena, kostu finkoen barruan sartuko genuke baita ere.

Beste aldetik, kostu aldakorrek ditugu baita ere. Horiek, hilabetero Inuu Yimadok prestatzen dituen araberako kostuak dira. Beraz, enpresa honek hilabetero ekintza desberdinak egiten dituen eta batzuk dohainik direnez (mendira joatea adibidez), eta beste batzuk ordaindu beharrekoa direnez (bazkari bat prestatzea adibidez), asko aldatuko dira kostuak hilabete batetik bestera.

Eskala ekonomia ez da gure enpresan oso ohikoa izango, guk produktu bat sortzen ez dugulako, eta ondorioz produkzioa handitzearengatik, produktu horren kostua ez da merkeagoa izango. Baina aplikazioa hilabetero edukiko dugun zerbait denez, gertatu litzatkeena da, aplikazioak geroz eta denbora gehiago irauten badu guri hura edukitzeagatik hainbat deskontu egitea. Gainera beste aukera bat da, gure hainbat bezeroek (tabernak adibidez), beraien zerbitzuak asko erabiltzeagatik, zerbitzu horren prezioa murriztea.

Hedadura ekonomikoari dagokionez, Inuu Yimado, gure proiektuan murgiltzen den jende kopuruaren araberakoa izango da. Beraz, jende gehiagok gure proiektuan parte hartuko balu, ekintza desberdinetara zabaltzea erraza izango litzateke, bazkari, mendira bueltak... egiteaz aparte.